

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	SEGURTASUNA BALIABIDE JARRAITU BIDEZKO GARRAIOAN	Iraupena	30
		Baldintzatua	
Kodea	UF0782		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Baliabide jarraitu bidezko garraioa	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Garraiatzaile jarraituak, uhal garraiatzaileak eta garraiatzaile blindatuak	Iraupena	80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0862_2 BALIABIDE JARRAITU BIDEZKO GARRAIOA EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Baliabide jarraitu bidezko garraioari dagozkion norbera babesteko ekipamenduak eta seinaleztapen- eta oharpen-ekipamenduak erabiltzea, lanpostuaren arrisku-motak identifikatuz.

E1.1 Baliabide jarraitu bidezko garraioaren arrisku espezifikoak identifikatzea, dagozkien prebentzio-neurriekin lotuta.

E1.2 Baliabide jarraitu bidezko garraio-eragiketetan erabili beharreko norbera babesteko ekipamenduak identifikatzea arriskuen arabera.

E1.3 Baliabide jarraitu bidezko garraio-eragiketetarako erabili beharreko norbera babesteko ekipamenduen erabilera eta mantentze egokia azaltzea, fabrikatzailearen erabilera-eskuliburuaren arabera.

E1.4 Garraio-eragiketetan erabili beharreko babes kolektiboko ekipamenduak (seinaleztapenak, babesak, suteen aurkako borroka, larrialdi-geldialdiak eta aurreabiarazte-abisua) identifikatzea arriskuen arabera.

E1.5 Segurtasun- eta seinaleztapen-tresnak egiaztatzea funtzionamenduan gerta daitezkeen anomaliak detektatzeko.

E1.6 Baliabide jarraitu bidezko garraioaren puntu kritikoak, hau da, kontrol-postuetan nahiz ibilbide osoan babesak behar dituztenak, identifikatzea.

E1.7 Baliabide jarraitu bidezko garraio-eragiketek ingurumenean eragin ditzaketen arriskuak ezagutzea, ingurumena babesteko hartu behar diren babes-neurriak adieraziz.

E1.8 Banda berotzearen ondorioz sor daitezkeen karbono monoxidoa detektatzeko ekipamenduen kokapen-puntuak ezagutzea.

Edukiak:

1. Segurtasuna garraio jarraituko eragiketetan.

- Uhal garraiatzaile bidezko lanaren arrisku espezifikoak:
 - Harrapaketak itzulera-arrabilekin edo buru eragileekin.
 - Suteak.
 - Proiekzioak.
 - Uhal-haustura.
- Uhal garraiatzaileei dagozkien prebentzio-neurriak:
 - Segurtasun-gailuak: larrialdi-geldialdia, aurreabiaraztea, CO-neurgailuak eta banda garraiatzailearen labainketa.
 - Babesak buru eragilean eta itzulera-buruan.
 - Suteen aurkako borroka.
- Garraiatzaile blindatu bidezko lanaren arrisku espezifikoak:
 - Harrapaketak katearekin.
 - Proiekzioak.
 - Arrasteak eta labainketak.
 - Kate-hausturak.
- Garraiatzaile blindatuei dagozkien prebentzio-neurriak:
 - Segurtasun-gailuak: larrialdi-geldialdia, aurreabiaraztea.
 - Suteen aurkako borroka, CO-neurgailua.
 - Errakleten kontrola.
 - Seinaleztapenak.

- Babesak buru eragilean eta itzulera-buruan. Arriskugunea.
- Ingurumena babesteko neurri espezifiko aplikagarriak. Hauts-kaptazioko ekipamenduak.
- Gas-motak. Neurgailuak.
- Aireztapen-motak.
- Norbera babesteko ekipamenduak: Auto erreskatagailuak????

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Presatakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0781 Garraiatzaile jarraituak, uhal garraiatzaileak eta garraiatzaile blindatuak

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Erauzketa-industrietako lurpeko garraio-instalazioetako eragiketak.